

Uharteak funtsezkoak dira munduko landare endemikoen babeserako

Uharteak lurrazalaren % 5 baino zertxobait gehiago ez badira ere, haietan bizi dira munduko landare-espezie guztien % 31. Hori frogatu du nazioarteko ikertzaile-talde batek, [Nature aldizkarian argitaratutako artikulu batean](#). Zehazki, 304.103 landare baskularri baino gehiagori buruzko datuak aztertu dituzte, eta agerian jarri dute uharteetako dibertsitatea: 94.052 espezie irltako natiboak dira, eta horietatik 63.280, endemikoak; hau da, ez dira beste inon bizi.



Aeonium lanzarotense. ARG.: Chmee2.

Nabarmendu dutenez, uharten isolamendu geografikoak eta klima eta ingurune bereziek espezie berrien eboluzio-tasa handia eragiten dute. Adibidez, Kanarietan *Crassulaceae* taldeko 50 inguru espezie sortu dira, arbaso bakar batetik abiatuta. Leinu hori, gerora, gainerako artipelago makaronesikoetara eta Afrikara ere iritsi da.

Bestalde, isolamenduan eboluzionatu duten landare asko oso zaugarriak dira klima-aldaketarekiko. Itsas maila igotzeak eta muturreko fenomeno klimatikoek kalte handia egin diezaiekete. Bildutako datuak, beraz, lagungarriak izango dira babeserako lehenetsunak zehazteko. ●

Three Mile Islandeko zentrala martxan jarriko dute Microsoft hornitzeko

Constellation Energy konpainiak Three Mile Islandeko (Pennsylvania, AEB) zentral nuklearra irekiko du berriro, Microsoft hornitzeko. AEBn instalazio nuklear bat berriro irekiko den bigarren aldia izango da.

Three Mile Island ezaguna da, 2. unitateak AEBn izan den istripu nuklear larriena izan zuelako 1979an. Horrelako istripuen ondorioz, energia nuklearrak babesa galdu zuen, baina, azken urteotan, aldeko jarrera indartzen ari da; bereziki, energia berdetzat hartzen delako, ez baitu karbonorik isurtzen.

Microsoftek ere bere karbono-isuriak murrizteko asmoz jo du energia nuklearrak hornitzera; izan ere, adimen artifizialeko azpiegiturek energia-eskaera gero eta handiagoa dute eta, beraz, Microsoften karbono-aztarna asko handitu da.



Three Mile Island zentrala, 2014an. Ezkerrean 2. unitatea dago, itxita, eta eskuinean 1.a, artean martxan. ARG.: ZZZ/CC BY-SA 3.0.

Zehaztu dutenez, Three Mile Islandek 800 MW baino gehiagoko energia eskainiko du. Instalazioa prest dago 2028an linean sartzeko eta 2054ra arte martxan egoteko, gutxienez. Crane Clean Ener ize-na jarriko diote instalazioari. Erabakiak eztabaida piztu du AEBn, baita handik kanpo ere. ●